

**BIZITEGI ERAIKINA (ANTZINAKO DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA)  
C MAILA****ARRASATE 12****Egilea eta data: Jose de Goicoa; 1889****Deskribapena**

Multzo osoan Arrasate eta Getaria kaleen arteko kantoiko orubea eraiki zen aurrena, Goicoaren 1889ko proiektuaren arabera, Caja de Ahorros y Monte de Piedad erakundeak erabiltzeko. Urte gutxi batzuk beranduago, Arrasate kaleko 12 zenbakiko orubea erosi ondoren, eraikina handitu zuten arkitektureko jarraibide berberen arabera. Eraikin honetan ikus daitezkeen aurrerago eraikitako jasodurak ere aldameneko 11 zenbakidun eraikineko jasodurekin (Cortazarren 1931koak eta Luis Jesus Arizmendiren 1948koak) bat datoz. 1950ean Arizmendi arkitektoak Arrasate kaleko antzinako enkante lokala eraberritu zuen ikuskizun areto bihurtzeko. Goicoaren lehen eraikinaren inguruan behin eta berriz egindako handitze eta eraberritze lanen ondorioz, etxabearen erdia inguru okupatzen duen irudi bateratuko multzo bat eratu da. Hain zuzen ere, bere tamainagatik eta berezitasunagatik eraikuntza multzo honek garrantzi berezia hartu du hiri mailan. Bere lengoia bereziaren ondorioz, hirian herritarrek erabiltzeko eraikin neogotiko gutxitako bat bihurtu da. Pinakuluak, trazeriak, eskulturen horma-hobiak eta bertan aurkituko ditugun beste zeinu estilistikoaren artean behe oineko arku saileko forma garbienak nabarmentzen dira.

**Babes erregimena.**

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baion konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitektureko proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena.
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta dekorazio moldatuak.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: goialdeko erremateak mantenduko dira; Getaria 7, 9 eta 11rekin esku hartze unitate osatzen du.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.